



Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |
Revista de estudios vascos | Basque studies review

13 | 2009
Numéro XIII

Bariazio sinkronikoa aztertzeo metodologia(k)

Gotzon Aurrekoetxea



Édition électronique

URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/1969>

DOI : 10.4000/lapurdum.1969

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Édition imprimée

Date de publication : 1 février 2009

Pagination : 43-59

ISBN : 978-2-86781-409-X

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Gotzon Aurrekoetxea, « Bariazio sinkronikoa aztertzeo metodologia(k) », *Lapurdum* [Linean], 13 | 2009, Sarean emana---an 15 avril 2013, kontsultatu 30 avril 2019. URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/1969> ; DOI : 10.4000/lapurdum.1969

Aurrekoetxea G. | IKER

Zer egin ‘Nouveau Roman’-aren hilotzarekin? Saizarbitoria eta birziklaia literarioa Hamaika pauso-n

Ur APALATEGI

UPPA

Laburpena:

Ramon Saizarbitoria euskal eleberraren modernizatzaile garrantzitsua izan zen 1969tik 1976ra bitartean. Bere fikziozko prosaren berrikuntza Nouveau Roman-aren problematika literarioa bereganatuz eta euskal munduari aplikatuz burutu zuen. Hemeretzi urteko isilaldi luzearen ondotik, 1995ean *Hamaika pauso* eleberria argitaratu zuen. Nouveau Roman-a aspalditik modaz pasatua zegoen ordurako. Baina Saizarbitoriaren unibertso literarioa hain hertsiki lotua egonki korrante horri, zaila zirudien Nouveau Roman-aren ondarea besterik gabe ezabatzea bere erreperitorio literariotik. Ondare literario pertsonal horrekiko kontua «likidatu» beharra zeukan idazleak, nahitaez. Iragan literario horren «likidazio» prozesua aztertzen saiatuko gara mintzaldi honetan erakutsiz zein aterabide aurkitzen duen autoreak errepikapena eta ukapena aldi berean saihestuz.

Abstract:

Ramon Saizarbitoria fut le principal modernisateur du roman basque entre 1969 et 1976. Il accomplit sa tâche de rénovation de la prose fictionnelle en s'appropriant la problématique littéraire du Nouveau Roman et en l'appliquant au monde basque. Après un silence de dix-neuf ans, il publie le roman *Hamaika pauso* en 1995, à un moment où le Nouveau Roman est depuis longtemps devenu un objet historique. Il semble difficile, pourtant, vue l'étroite l'imbrication entre ce courant et l'univers personnel de l'auteur, d'effacer purement et simplement de son répertoire littéraire le legs du Nouveau Roman. L'écrivain paraît condamné à liquider (ou du moins à solder) le compte de ce patrimoine littéraire avant de poursuivre son chemin créatif. Nous tenterons d'analyser ce processus de liquidation en montrant la façon dont Saizarbitoria se fraye un chemin évitant tant l'écueil de la répétition que celui de la dénégation.

Gako hitzak: Ramon Saizarbitoria, euskal literatura, «Nouveau Roman», postmodernitatea

Keywords: Ramon Saizarbitoria, Basque literature, «Nouveau Roman», postmodernity

1. Saizarbitoria nouveau romancier-a.

Ramon Saizarbitoria Zabaleta 1944ean sortu zen Donostian eta gaur ere sortirian bizi da, Donostia delarik bere obra literario gehienek ekintzaren kokagune. Bere obran, alde batetik 1969tik 1976ra bitarteko aldia legoke, zeinetan idatzi baitzituen euskal literatura modernitatearen ildoan jarriko zuten bere hiru lehen eleberriak : *Egunero hasten delako* (1969), *Ehun metro* (1974) eta *Ene Jesus* (1976). Beste batetik, aztergai dugun *Hamaika pauso* (1995) eleberriaren argitalpenarekin hasten den eta oraindik bukatu ez den aldia legoke. Bi aldien arteko etendura 19 urtekoa da eta idazle izaeraren onarpenak sinbolizatzen du hobekien eta sakonkien bien arteko jauzi kualitatiboa. 1995ean, Durangoko liburu eta disko azokaren kariatara *Hamaika pauso* aurkezten duenean, hots, 19 urteko isilaldi luzearen ostean, zera adierazten du idazleak *Egunkariak* egin elkarrizketan: «Hemendik aurrera ez diot neure buruari ukatuko idazlea naizela»¹. Jakinik aitzinetik ere Saizarbitoriaren idazle estatusa ongi finkatua zegoela euskal literaturaren historietan, apur bat misterioitsua suertatzen da idazlearen ordurarteko konplexua eta bat-bateko asuntzio hori.

Euskal literaturaren historiagile guztiak bat datoz onartzeko Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*-rekin aro berri bati hasiera ematen zaiola euskal letretan. Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) jotzen bada ere lehen eleberri modernotzat, aski onartua dago benetako haustura eta jauzi kualitatiboa Saizarbitoriak eman zuela. Izan ere gaiaren eguneratze soilari edota teknika narratibo berri batzuen introdukzioari Saizarbitoriak literaturaren gaineko ikuspegi alda-keta kopernizianoa gehitu zion literaturtasunari buruzko gogoeta bere obraren ardatz bihurtuz eta lotura extraliterarioetatik (baita euskararekikoetatik) erabat aske utziz bere prosa.

Nouveau Roman korronteari loturik ageri zaigu hasiera-hasieratik Saizarbitoriaren izena euskal letren panoraman. Abenturaren kontaketa sinpleari uko egin eta kontaketa abentura aintzat hartzea erabaki zuen idazle talde paristar batek Nouveau Roman deritzona sortu zuen berrogeita hamarreko hamarkadan. Sartre batek zioenaren aurka artearen autonomia aldarrikatzen dute eta pinturan abstrakzioaren pareko zerbait sortu nahi dute literaturan. Susmoz begiratzen diete eleberri tradizionalari *-L'ère du soupçon* da Nathalie Sarraute idazlearen saiakera-manifestu famatuaren izenburua-, zeren, Claude Simon-ek dioenez : « assez vite, j'ai été frappé par l'opposition, l'incompatibilité même qu'il y a entre la discontinuité du monde perçu et la continuité de l'écriture »². Horregatik, kontaketa arbuizatzeari ekingo diote kontaketatik bertatik, ilusio erreferentziala hausteko asmoz. Horretarako, *mise en abyme*-a, simetria joku gehiegizkoak, estrukturaren exhibizioa eta naturalismoa hautsiz narrazioaren artifizioa agerian utz dezakeen orori helduko diote.

Egunero hasten delako eleberriak urte berean argitaraturiko Txillardegiren *Elsa Sheelen*-ek bezala protagonista nahiz kokapen atzerritarrak dauzka. Aipatzen dituen gaiak, aldiz modernoxeagoak dira. Txillardegik apaizen sekularizazioa aipatzen bazuen, Saizarbitoriak abortuaren gaia ezartzen du lehen planoan, baita, orokorkiago, feminismoarena. Baina bien arteko egiazko aldea ez datza horretan. Saizarbitoriak kontagintzari loturiko benetako berrikuntzak proposatzen dizkigu, eten-gabeko eleberriari buruzko gogoetara bultzatuz irakurlea. Hala, hari narratibo nagusiaren bitartez abortatu gogo duen Gisèle Sergier izeneko ikasle gazte baten istorioa kontaktzen zaigun bitartean –modu behaviouristan kontatu ere, hau da objektiboki eta fokalizazio adaketak baliatuz–, bigarren

1. Egunkaria, 1995-12-9, Durangoko azokari buruzko gehigarriaren 6. orrialdean.

2. "Réponses de Claude Simon à quelques questions écrites de Ludovic Janvier", *Entretiens*, 31, 1972, p.18.

hari batek eleberri tradizioaletik haratago garamatza. Tren geltoki batean edota telefono zentralita batean telefonoz hizketan ari den berritsu baten elkarrizketak –solaskidearen hitzen elipsi erabatekoa baliatuz gainera, Camus-ren *La Chute* monologoan bezala– okupatzen dute osorik bigarren plano hau. Eta harrigarriena da elkarrizketa hauek ez dutela zerikusi zuzenik lehen planoko istorioarekin. Ez dago eleberri hau ulertzerik, dudarik gabe, Nouveau Roman korronte literarioaren gakoak menderatu gabe, ondoko azpi kapituluaz azalduko dudanez. Esan daiteke eleberri honek, bere erradikalitasun formalarengatik zein berezko kalitatearengatik, benetako haustura modernoa burutzen duela euskal letren tradizioan. Gure literaturako lehen obra erreflexiboa da, hots, bere buruaz, bere izaera literarioaz, eleberriaren diskurtsoaz gogoeta egiten duen lehen obra literario euskalduna.

1974ean, alta, Saizarbitoriak *Ehun metro* eleberria argitaratzen duenean berehalako arrakasta publikoa eskuratzen du³, nahiz eta obra hau bere *opera prima* bezain esperimentalta izan (bigarren pertsonaren erabilera narrazioan, ikuspuntu aniztasuna, eleaniztasuna, etabar). Eta arrakasta hau, Sarrionandiaren poesiarekin gertatuko den bezala larogeieko hamarkadaren hasieran, gaizkiulertu bati zor dio autoreak, askotan aitortu eta deitoratu duenez. Zertan datzan gaizkiulertua? Bada, ez da zaila azaltzea. Nobela honetako protagonista ETAkide bat da, zeinaren azken ehun metroak –Donostiako konstituzio enparantzaren diagonalak– deskribatzen baitzaizkigu. Mugimendu armatu honek garai hartan zuen popularitatea ikusirik euskal munduan, eta bukatzeaz zegoen frankismoa-rikiko gorrotoa aintzat hartuz erraz ulertuko da irakurleko euskaldunaren irakurketaren nolakotasuna. Euskal irakurlekoak Saizarbitoriaren obra modu politiko batean irakurriko du, Guardia zibilarren bortizkeriaren salaketa bat bezala eta euskal militantearen gorazarre gisa. Egun, kontestua desberdina delarik oso, hobeto oihartzun gara, liburuak mezurik badu, honako hau dela: munduaren pertzepzioa erlatibo dela eta ETAkidearen ideologiaren ondoan hiritar arrunt askok indiferentzia begiratzen dutela Guardia zibila nola ari den tirokatzen militantea bere ihesaldiaren azken metroetan. Ez dago ikuspegi absoluturik. Mundua ikuspegi desberdinez osturik dago, askotan kontraesankorrak diren ikuspegiz, eta egia guztiak dira erlatiboak. Eleberriaren objektibotasunak eta dialogikotasunak agerian ezartzen du ikuspegi bateratzailerik eza. Eleberriak azaltzen duen errealitatea –ez baitu egarrik edo mezurik ematen– bortitza da, asalagarria ere, baina bakarrik gure ideologiaren arabera.

1976ean *Ene Jesus* kaleratuko du Saizarbitoriak, eta gaizkiulertua argitu nahi izan balu bezala lehen baino are esperimentalagoa agertuko da bere idazkeran. Obra hau, izan ere, inoiz euskaraz idatzi diren « zailenetakoa » dela esan baikenezake, bederen ikuspegi tradizional batetik. Ez dago egiazko ekintzarik, diskurtso nobeleskoaren ezinezkotatasunaren kontzientzia eta isiltasunaren poetika daude eleberriaren oinarrian eta ez da beraz harritzekoa testua diskurtso fragmentario eta hutsunez bete bihurtzea. Laburpena egitea ez da erraza baina honelakoa litzateke kontatzen zaigun *istorioa*: gizon bat eroetxean dago, ohe batean etzanda antza, eta istorioak kontatzen ditu, denbora pasatzeko. Samuel Becketten mundu absurdoa, zeinetan hitzak munduaren absurdua betetzeko baliatzen diren, gogora dakarkigu nobelak. Bitxiki, esperimentalta izan arren, humanitatez beteriko eleberria dela esatera ausartuko nintzateke –hori bai, humanitate desesperatu batez bete– eta

3. Ezagutu zituen argitalpen ugarietz gain obra hau gaztelarrera, frantsesera, ingelesera eta italierara itzuli zuten (gauza harrigarria garai hartarako!) eta Alfonso Ungría zinema zuzendariak pantailaratu egin zuen 1985ean.

bere bigarren idazlealdiko hainbat tematika, esaterako *Hamaika pauso*-ko protagonistaren hainbat obsesio eta nortasunaren ezaugarri– bertan agertzen dira lehen aldiz, garapen handiago baten zain baileuden.

Laburbiltzeko, esan daiteke Saizarbitoriaren lehen aldian 50, 60 eta 70eko hamarkadetako modernotasunaren ikur eta prozedura literario gehienak –ez bakarrik Nouveau roman-a– erabiltzen dituela (behaviourismoa, perspektibismoa, Nouveau Roman-aren erreflexibotasuna, absurdotasun beckettiarra) euskal eleberrigintza bere anakronizitate kronikotik ateratzeko asmoz.

2. Saizarbitoria postmodernoa

Hemeretzi urte beranduago, *Hamaika pauso*-rekin, aldiz, Saizarbitoriak abian den tren baten martxa hartzen du, euskal literatur sistema kozkortu batena eta eleberrigintzan indarrean dagoen errealismo berriarena. Euskal literaturan errealismoa da berriz gailendu, urte anitzez –hain zuzen Saizarbitoria isilik egon den urteetan–nagusi izan den fantasiaren mundua edota neorruralismoarena bigarren plano batean utziz. Mugimendu honi hasiera Atxagaren *Gizona bere bakardadean* lanak eman zion, 1993an. Eta Saizarbitoriak berak bere liburua aurkeztean zera dio, «hemengo gauza inmediatez hitz egiteko ausardia izango litzateke berria, lehena ez naizen arren hemen ez baita asko kultibatzen hori»⁴. Bada, egia esan, antzekotasunik Atxagaren eta Saizarbitoriaren bi obra gotor hauen artean. Bietan ETAkidea da protagonistetako bat. Biek Bartzelona eta Euskal Herria dituzte kokagune bikoitz. Eta biak ala biak mintzo zaizkigu Trantsizioa deritzon garai historikoaz. Halere, azalekoak dira antzekotasunak eta oso sakonak desberdintasunak. *Hamaika pauso* itzuleraren liburua izan zen Saizarbitoriarentzat, baita bere behialako estatusa konfirmatzeko modu bat euskal sistema literarioa egituratuagoa zegoen aro berri honetan. Horregatik heltzen dio halako seriosotasun batekin modan dagoen genero zein gaiari. Bere postua berreskuratu nahi badu puntako idazleekin lehiatu behar baita eta terreno berean gainera.

Agian harrigarriena zera da, Saizarbitoriak ez dituela itzuleraren eleberri honetan erabat baztertu Nouveau Roman-aren eginmoldeak. *Hamaika pauso*-rekin garai berrietara egokitu arren –oroitu 80eko hamarkadatik aitzina, posmodernitatea nagusitzen zaiola modernitateari eta narrazio tradizionalera itzultzen dela literatura (hori bai, distantzia ironiko edo « bigarren gradu » batekin)–, bere hastapenetako poetikari modu bitxi batean leiala izaten jarraitu duela baina zurruntasunaren edo anakronismoaren arriskua maisuki saihestuz. *Hamaika pauso*-ren kasua berezia da, izan ere, autorearen bibliografian zeren hain zuzen Nouveau Roman-a modan zegoen garaiean girotua baitago ekintza eta horrek justifika baitezake –barne justifikazioa litzateke beraz–hein batean teknika hauen erabilpena. Baina ondoko eleberriak begiratu gero ohartzen gara Saizarbitoriak naturaltasun handiz jarraitzen duela teknika hauetako batzuk erabiltzen (nahiz eta gaurko giroan kokaturik egon ekintza), honek ez duelarik ezertan oztopatzen bere unibertso literario pertsonalaren garapena eta ez duelarik ezertan anakroniko bihurtzen bere produkzioa.

3. Hamaika obsesio saizarbitoriar

Eleberri hau irakurtzean kontuan hartu behar dugun elementu bat, behar bada orotan garrantzitsuena, zera da, protagonista nagusia idazle bat dela. Honek, nahitaez, liburuaren

4. Euskaldunon Egunkaria, op.cit., p.6

interpretazioa baldintzatu egiten du. Ohartzten gara, irakurketan aurrera egin ahala Euskal Herriaren historia modernoaren zati bat modu subjektiboan aztertzeaz gain eleberrri honek baduela bigarren planoan beste gai bat: idazkera erromaneskoarena. Ez du zentzurik ageriko gaia ala bigarren planokoa ote den garrantzitsuena eztabaidatzeak, zeren argi dago ez dituela Saizarbitoriak arrazoi sakonik gabe uztartu biak nobela bakar batean. Idazkera erromaneskoari buruzko gogoeta da, dudarik gabe, *Hamaika pauso*, baina historian kokaturiko idazkera mota bati buruzkoa eta historiatiak egindako begiratua eskaintzen zaio bere garapenari. Hots, 1973tik 1984era bitarteko epea besarkatzen duen eleberrri honek garai horretan garatzen den idazkera literario mota du gogoetagai –laburbiltzeko, Nouveau Roman eta estrukturalismoaren ondaretik edaten duen tradizioa, narrazioa krisian jartzen duen hori– baina 1995eko ikuspegitik egiten da gogoeta, desfase honek dakarren distantzia kritikorekin. Eta, noski, ezin dugu ahantzi, literatura mota horren bozeramaile eta protagonista nagusia, Euskal Herrian bederen, Saizarbitoria bera izan genuela. Horregatik, pentsa daiteke 70eko hamarkadako idazlearen irudi kondentsatua den Iñaki Abaituak pertsonaiak baduela zerikusirik lehen aldiko Saizarbitoriarekin eta, hortaz, eleberrri hau badela ere bigarren aldiko Saizarbitoria berriak bere idazle iraganari buruz egiten duen gogoeta eta gaingintze ahalegina.

Badakigu, bestalde, literaturarena bezalako esparru kualitatiboan *gaingintze* hitza problematikoa suerta daitekeela, baina uste dugu merezi duela perspektiba horri bere aukera ematea eta ikustea zertan saiatu den Saizarbitoria bere *corpus* zaharraren ondare-presondegitik ateratzen eta zertan jarraitu duen bere hastapenetako poetikari leiala izaten *Hamaika pauso*-rekin *summa* bat idatziz, bere hamaika obsesioen birziklaia. Horretarako, eleberrriaren poetika inplizitua osatzen duten zenbait “poetikema” isolatu eta zerrendatuko ditugu, ikusiz nola jasotzen edo traizionatzen duten Saizarbitoriaren 70eko hamarkadako obren poetika aurretik ongi aztertua. Zeren, eta hau da azterketa honek duen interesetarik bat, Saizarbitoriak berriz idazteari ekiten dion 90eko hamarkadan narrazioaren krisia aspalditxotik bukatutzat eman baitaiteke eta joera posmodernoari jarraiki eleberrigintza berriro ere kode narratibo klasikoagoetara itzulia baita.

a)-Idazketaren teoriaren idazketaren teoriaren...

Nouveau Roman-aren ezaugarri nabarmenenetako bat literaturari buruzko teoria literaturan bertan txertatzeko joera izan zen eta Saizarbitoria jokamolde horri lotu zaio bere obra guztian zehar, *Hamaika pauso-n* barne. Narraziogintza klasikoaren kritikatik abiatzen da Nouveau Roman deritzon korronea eta adierazgarria da bere manifestuetarik bat *L'Ère du soupçon* (Nathalie Sarraute, 1956) deitu izana. Narrazio molde tradizionalak, bereziki XIX. mendeko eleberrigintza europarrean garatzen direnak, susmagarritzat jotzen dituzte idazle berriok, kontsideratuz ilusio errealista edo psikologikoa proposatzen dutela egiaren mozorropean eta bereziki forma literario horien errepikapena bihurtzen dela gezur erromaneskoaren iturri, ez baitago egungo egoerari egokitzeko ahaleginik. Ilusio horri aurre egiteko zenbait bide ere proposatuko dituzte, hala nola psikologia estrata sakonago edota ikustezinago batzuen azterketa (Sarraute) edota diskurtso nobeleskoaren exhibizio salatzaile bat. Bigarren ildo hori da apika gehien landuko dena eta mugimendu horretako autore gehienek narrazioak sor dezakeen ilusio mimetikoa etengabe salatuko dute beraien narrazio propioaren gakoak eta egiturak agerian utziz nahiz hauen teoria eginiz.

Borondate desmistifikatzaile eta kritiko horren aztarnarik badago Saizarbitoriaren obra goiztiarrean eta ikusi besterik ez dago lehen hiru eleberrietan egiten dituen joku narratologiko konplexuak ohartzeko ez gaudela prosa klasiko baten aurrean, baizik eta eleberrigintza ohikoaren hutsuneak salatu nahi dituen ekoizpen literario baten aurrean. Pentsa zitekeenaren aurka, *Hamaika pauso-n* ez dugu atzerapausurik arlo horretan. Gaurko korronearen aurka joanez, Saizarbitoriak

bereari eusten dio eta eleberriaren teoria sendo bat den eleberria proposatzen digu. Nola saihesten duen orduan anakronismoa? Oso sinpleki, bere pertsonaia 70eko hamarkadako idazle bihurtuz, hots markotik edukira igaroaraziz gogoeta teorikoa. Horrela, *Ehun metro* batean, ala *Ene Jesus* batean marko narratiboaren mailan gertatzen baldin bazen idazketaren galdezkatzea eta ez pertsonaien mailan, hemen nobelaren gai bihurturik ageri zaigu bere pertsonaia nagusiaren bitartez. Beste modu batera esateko, *Hamaika pauso*-n narratzaile posmoderno bat –extradiegetikoa– idazle moderno bati buruz –intradiegetikoa– ari zaigu, zeina liburu moderno bat idazten ikusten dugun.⁵

b) Denbora psikologikoa vs. denbora kronologikoa

Saizarbitoriaren eleberria historian oso kokatua dagoen eleberria izan arren lineartasunari uko egiten dion liburu da, liburu bat zeinetan gertakariak nahas-mahasean eta maiz errepikaturik ematen baitzaizkigu, ordena subjektibo baten arabera. Ordenatze ez logiko horren berme teorikoa “memoria plater hautsi bat da” Claude Simon-en esaldia litzateke. Eta bide batez ohartzen gara, beste behin ere eleberriak bere antolaketaren giltzak ematen dizkigula, liburuaren teoria liburuan bertan txertatuz. Berriro diogu, Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* ez da gertaera historikoekiko errealista edo leiala, baizik eta gertaera hauen oroitzapenarekiko. Horregatik, rekonstituzioa ez da historiarena oroimenarena baino. Aldekoak Marleau-Ponty-ren aipu bat osorik dakar, nahiko ondo zilegiztatzen duena denboraren bertsio subjektiboaren hautaketa:

“[Le temps subjectif est celui] qui naît de mon rapport avec les choses, qui n’a de sens pour nous que parce que nous le ‘sommes’, qui est à la lettre le sens de notre vie, et, comme le monde, n’est accessible qu’à celui qui y est situé et qui en épouse la direction”.⁶

Ulertzen dugu denboraren beste kontzepzio bat, objektiboa, gezurtia litzatekeela. Eta ez dugu esan nahi honekin denbora subjektiboa eta bere berreraikuntza egian oinarritzen direnik, baizik eta errealtatearen kontzepzio elastikoago bat daukala oinarrian.

Eta plater hautsiarena ez da autoreak darabilen irudi bakarra memoriaren berreraikitze joko metaforizatzeko. Güell Parkeko mosaikoa ere eleberriaren eraikuntza kronologiko ezohikoaren azalpen egokia dateke zeren antolaketa ezohiko honen eraginetarik bat denboraren espazializazioa baita. Ez gaude abiadaren eta jarioaren estetika batean, baizik eta puzzle mentalaren ala koadro kubistaren kokapenaren problematikan.

Konkretuki baina, nola gauzatzen da denbora linearrarekiko urruntze hau? Zerrendatxo bat egin genezake.

Lehenik, prolepsiaren eta analepsiaren erabilera nahiko klasikoak leudeke. Oroimena ardatz duen eleberri batean analepsiaren edo *flash back*-aren omnipresentzia ez da harritzkoa. Prolepsiarena esanguratsuagoa iruditzen zaigu aldiz. Zerbait salatzen du. Etengabeak dira prolepsiak eleberri honetan, izan daitezen explizitoak ala implizitoak. Esaterako, gorago aipatu dugun eleberriaren lehen paragrafoan, eleberriaren lehen esaldian, beraz, iragartzen da Abaituaren suizidioa (modu nahiko alusiboan). Eta esan daiteke hemen prolepsia erabiltzen den bakoitzean heriotza edota ka-

5. Zehaztu dezagun, anbiguitateak uxatzearen, modernotzat joko ditudala aurrerantzean Nouveau Roman-ari ala estrukturalismoari loturiko joera literarioak, joera postmodernoek kontrajarriz.

6. Maurice Merleau-Ponty, *Phénoménologie de la perception*, Paris, Gallimard, 1945, 489. or.

tastrofe bat iragartzeko erabiltzen dela. Fatalitatearen indarra eta honen aitzineko Abaituaren ahulezia dira azpimarkatzen direnak alde batetik. Existenzialismo sartrearrak zioen bizitza bat destino bihurtzen dela hiltzen zaren unean. Hots, hil aurretik beti dagoela aukera egindako eta bizitako guztiaren zentzua –norabidea– aldatzeko, aukera librea eginez. Bada, heroiaren heriotza, eta gainera heriotz hautatua, iragarriz, eleberriak askatasun sentsazioari uko egiten dio eta hastapenetik patu huts den bizitza bat kontatzen digu. Hori dela eta, uler daiteke lineartasunak ez garrantzirik izatea. Patu huts den Abaituaren bizitzan zehar nahi den moduan ibil daiteke, atzera, aurrera, zeharka, detailetoetan geldituz, zenbait elementu handituz, pasarte hobereen errepikaldia proposatuz, telebistan bageunde bezala... Baina bestalde, nobelak argi eta garbi esaten digu suspentsea ez dela izango bere sedukzio arma. Sotilagoa izan nahi du eleberriak eta bestelako errekurtoak erabili nahi ditu irakurlea bereganatzeko.

Errepikapena aipatu dugu, eta hau litzateke lineartasuna hausteko Saizarbitoriak darabilen errekurtoetarik bat. Juan Garziak dio nobela hau irakurtzen duenean “tema” hitza musikan duen zentzuan interesatzen zaiola,⁷ alegia luzean errepikatzen den zer bat dela tema saizarbitoriarra, eta ez hainbeste “gai” bat. Eta egia da eleberri honetan zenbait motibo funtsezkoen agertze-desagertze etengabea gertatzen dela, musika zati batean bezala. Zabalegiren zapata estuegiak, Güell parkeko eztabaida sentimentalak, Abaituaren Omega ordularia, “babo alena”, “piztu dezakek argia” eta antzeko esaldiak... Funtsean, Robbe-Grillet maisuak azaltzen zuen: “Eszena bat ez da errepikatzen garrantzitsua delako, errepikatzean garrantzitsu bihurtzen delako baizik”.⁸ Haatik, errepikapena ez da Saizarbitoriaren ikuspegi estetiko edota teorikotik bakarrik justifikatzen. Hemen baduke barne justifikazio indartsu bat, eta da Abaituaren nortasun obsesiboa. Gauzak errepikatzen badira da, neurri handi batean, Iñaki Abaitua iraganeko gertakizun umiliagarri eta traumatizanteenak obsesionaturik bizi delako, etengabe hausnartzen dituelako.

Erabilia den beste teknika bat, errepikapena bezala eszena ala motiboaren enfatizazio ahalegin bati lotua, dilatazio tenporalarena da. Tarteka eleberriak eszena bat edo motibo bat errealismoaren mugetatik harat eramaten du denboraren dilatazio bat erabiliz. Hori gertatzen da, esaterako Zabalegiren heriotzaren unea iristen denean, hots, tiro egiten diotenean (373. or.). “Erreaki” segundu pare bat irauten duen gertakizuna –tiro egitea eta lurrera erortzea– bi orrialdeko ekintza hanpatu eta geldotua bihurtzen da, detaile fisiologiko hiperrealistaz hornitua. Sergio Leoneren *western spaghetti*-etako eszena zenbait datozkigu gogora.

Azkenik, eleberriaren lineartasuna hausten duten elementuen artean trantsizioa (edo trantsiziorik eza?) aipatu beharko genuke. Esan daiteke eleberri honek bi hari narratibo paralelo (biak ala biak heriotzerantz doazelako) eta aldi berean kontrapunktiko (kontrastea dagoelako bi pertsonaien artean) dituela: Zabalegiren ekzekuzioaren deskribapena (Abaitua eta narratzailearen eskutik, batzuetan narratzaileak Abaituaren esanak zuzentzen dituelarik) eta Iñaki Abaituaren autodestruktzioaren kontakizuna, honen ardurak narratzaileak bakarrik duelarik. Bestalde, hari narratibo hauek beraien potentzialitate diakroniko osoa garatzen dute arestian aipatu analepsi eta prolepsien bitartez. Beraz, orotara material erromaneskoa hain da aberatsa eta anitza non zaila dirudien kontaktizuna antolatzea.

7. Juan Garzia, op. cit., 94. or.

8. Robbe-Grillet, *Confesiones de escritores*, Buenos Aires, El Ateneo, 1996, 258. or.

Lineartasunari uko egiteaz gain, Saizarbitoriak laburpena/eszena mozketara erromanesko ohikoari ere uko egiten dio eta esan daiteke ia osorik eszena hanpatuen alborakuntza dela eleberria, fragmentuen *collage*-a bailitza. Honela teorizatzen du Abaituak idazkera mota hau Susanarekin Güell parkean egon zen aldi bat oroituz:

“Susanarekin han bertan egon zen egunean, fragmentazioaren literaturak duen barne-armonia ere –Butor-en hitzetan, ‘historiaren linealtasun konbentzionalarekin bat ez datorren ordena ezkurtua’– antzeko zerbait izan zitekeela sumatzen zuen, haren aurpegi negartiaren ikuspenari ihes egi-tearren, oinetan, distiratsua ziren mosaiko zatiei so, beren osotasunean ez bide zuten egokitasun intimoa atzematen zielarik.”⁹

Elipsi narratiboa etengabeak dira eta autoreak ez du inoiz hartzen “gauzak nola doazen” azaltzeko ardura ekintzaren laburpen bat proposatuz. Intentsitate handiko eszena gakoak akumulaketa bat da *Hamaika pauso*, zeinetan hari narratibo batetik bestera nahiz iraganetik oroitzearen orainera joan-etorri etengabeak egiten baitira logikaren ardura gehiegirik gabe. Nola pasatzen da, beraz, Saizarbitoria eszena batetik bestera, ez bada go lotura logiko-diskurtsiborik edota bederen sintesi-laburpen pasaterik? Bada psikoanalisiak asoziazio libreak deitzen dituen lotura intuitibo inkontzientek erabiliz.

Adibide bakar bat aski bekit eginmoldearen berri emateko. Une batean Abaitua ikusten dugu Daniel Zabalegiren sumarioa aztertzen. Orrialde batzuk irauten du pasarte honek eta bat-batean zera esaten zaigu: “Sumarioa magalean zuela, paperez inguraturik zegoen Juliak atea jo zuen *hartan*” [nire letra etzanak]. Beraz, Juliarekiko harremanaren planora igaro gara Zabalegiren bizitzatik, eta baita sumarioa belauten gainean zuen aldi batetik bestera, *hartara*. Eta hori guztia inolako trantsizio aitorturik gabe, horrela, besterik gabe. Sumarioa belauten gainean edukitzearen motiboa erabiliz bi pasarteak uztartzeko.

Asoziazio librean teknika psikoanalisiak erabili bazuen kontzientziaren aukera auto-zentsuratuetatik ihes egitea baimentzen zuelako izan zen. Pazienteak burura datozkion gauzak datozkion eran eman behar izaten ditu, espontaneoki eta aukeratu gabe. Noski, arau hau ezin da erabat aplikatu, besterik ez bada pentsamentua hitza baino lasterrago doalako eta beti dagoelako denbora tarte bat zeinetan aukera bat egiten edo norabide bat hartzen duen pazienteak burutik pasa berri zaiona formulatzerakoan. Baina, eta hau da interesgarria Freuden aburuz, aukera edota norabide hauek isilune, duda, *lapsus* edota *coq-à-l’âne*-en bitartez manifestatzen dira eta azken hauek txit interpretagarriak dira. Bada, honelako zerbait litzateke *Hamaika pauso* (bai Saizarbitoriarena, bai Abaituarena), isilune, duda, errepikapen, *lapsus* eta batez ere *coq-à-l’âne*-ez betetako irudi eta ideia segida ez antolatua. Eta hain zuzen ez antolatua delako ezin antolatuagoa, alegia inkontzientek antolatua. Eta egia da hori dela harrigarriena, *Hamaika pauso* antolakuntza logikorik edo agerikorik gabeko eleberria izan arren antolakuntza sakonagoa duen liburua da eta irakurleak ez ditu inoiz faltan botatzen ez lineartasun kronologikoa, ez logika.

Esan daiteke, denbora subjektiboa ez duela lehen aldiz erabili Saizarbitoriak *Hamaika pauso*-n. Badira, jakina, halako esperientzia narratiboak *Ehun metron* nahiz *Ene Jesus*-en. Esaterako eszena dilatatuaren teknika da *Ehun metro*-ren eraikuntzaren ardatz nagusia, eleberriak eszena bakar bat,

9. *Hamaika pauso*, 190. or.

eleberri bihurtua, kontatzen digulako. Errepikapenak eta trantsizio libreak ere ugari dira *Ene Jesus*-en. Baina hemen, egitura narratologikoa askoz ere konplexuagoa izateaz gain historiaren geruza handi samar bat aintzat hartzeak beste dimentsio bat ematen dio teknika horien erabilpenari. Izan ere, *Hamaika pauso* ez baita bakarrik une historiko konkretu baten kartografia subjektiboa baizik eta subjektibotasun kartografo horren zereginari buruzko gogoeta ere.

d)- Denbora berraurkitua eta idazkera edo Prousten ondarea

Iraganaren presentzia, hots, denbora geruzen metaketak sortu loditasun erromanesko sentipena ez da arras berria Saizarbitoriaren obran. *Ehun metro* bezalako obra batean ere, nahiz eta aktualitate gai bat izan hizpide, Saizarbitoriak hirugarren hari narratibo bat sartzen zuen kontrapuntu gisa esplika zezakeena orainean kokaturiko borroka armatuaren fenomeno. Iheslariaren azken metroak ziren kontagai lehen planoan, bigarreanean berriz azken metro horien lekukoaren interrogatorioa eta azken planoak praile kolegioko haur baten istorioa kontatzen zigen. *Ene Jesus*-eko pertsonaia nagusia ere iragan edipiar jasanezinaren zamarekin bizi zen. Beraz, iragana elementu erromanesko zentrala zen obra hauetan ere. Zer da beraz berria *Hamaika pauso*-n? Supleki iragana historiako iragana –hots, extratestuala– ez ezik obrak berak sorturiko tenporalitatearen iragana ere badela. Esan nahi duguna da, *Hamaika pauso* osatzen duen materia testual organikoa bere buruaz oroitzen dela obrak aurrera egin ahala.

Horrela, liburuaren hamaikagarren kapitulua hasten denean bat-bateko jauzia eginarazten digu Saizarbitoriak denboran eta pertsonaia berak urte batzuk beranduago aurkitzen ditugu, zahartuta. Pasarte, jakina, guztiz proustiarra da eta Guermantes-tarren etxeko dantzaldia oroitarazten digu, *Denbora galduaren bila*-ko *Denbora berraurkitua* azken liburukian aurkitzen dena. Fikzioak berak sorturiko pertsonaiak zahartuta aurkezten digu autoreak: Abaituaren koadrilako pertsonaiak aldatu egin dira trantsizio urte horietan zehar eta mundu berriaren koordinatuetara egokiturik aurkitzen ditugu Abaituak bere hastapeneko egoeran blokeaturik jarraitzen duen bitartean, funtsean Abaituak ez duelako historian sinesten. Abaitua oroitzeko gai da, baina ez aurrera begiratzeko. Historia oroipenaren eritasuna da Abaituarentzat, oraina pozointzen dion zerbait. Bere eginkizun nagusia oroitzea da, umiliagarriak suertatu zaizkion pasadizo mingotsetaz oroitzea, ala Zabalegiren bizitza berreraikitzea bere propioa arinago suerta dakion.

Eta Prousten obran oroimena, jakina denez, sentsazioek eragiten bazuten (usaimenak, ukimenak, dastamenak), Saizarbitoriak badu berezitasun bat bere-berea arlo horretan. Reminiszentzia saizarbitoriari gehienak hizkerak eragiten ditu. Pertsonaia saizarbitoriarrak hizkera izakiak dira. Esan ohi zutenagatik oroitzen ditu Abaituak, eta narratzaileak ere Abaitua esan eta idatzi zuenagatik oroitzen du batez ere. Koadrilako Arantxa “ona zaude zu” gaiztoki Abaituari esaten diona da, Ortiz de Zarate “piztu dezakek argia” esaten diona Abaituari bere logelara galtzerdi pare baten bila sartzen denean goizaldean, Diego Suñer “diberti zaitetze” esaten diona Abaitua eta Susanari larrutan egitera doazenean, Zabalegi bere amari “erabili ahal izango ditudanagatik” esaten diona da zapata pare eramaten dionean presondegira, etabar. Eta esaldi labur hauei testuak errepikapenaren bitartez ematen die garrantzia, gorago azaldu dugunez. Zerbait adierazi nahi dute esaldi hauek, zerbait sintetizatzen dute, eta hori ulertarazteko errepikatzen dira. Noski, ez da hau testuak duen baliabide bakarra pertsonaia baten esentzia laburki azaltzeko –elementu bisualak, hala tikak (Juliaren zigarroa eri txikia eta nagia artean atxikitze modua) nola ezaugarri fisikoak (Zabalegiren orbana edota Zarateren orbaina), baina bai nagusia. Beste ezein autorek baino gehiago darabil Saizarbitoriak hizkera pertsonaiak marrazteko eta laburbiltzeko, esentzia bihurtzeko. Pertsonaien hizkera reifikatu egiten duela esan genezake, fetitxe bihurtzen duela Saizarbitoriak.

Joera horren karrikatura Susanaren tratamendu narratiboa litzateke. Etno-soziologikoki ezin katuago geratzen da Susana Abaituaren ikuspegi trufatian bere hizkeragatik.

“Bazekiela esan zuena esango zuela, errepikatu zion [Abaituak], eta agian, dena perfektu izateko ‘Dios mío’ edo ‘cielo santo’ baten gehigarria beharko zukeela.

–‘Dios mío, si lo sé, me traigo el land rover’. Ikusten? Horrela hobeto.

Ez zirudien ironia ulertzen zionik, eta ‘ze inozoa zaren’ esan zion, zerbait ulertzen ez zuenetan esan ohi zuen bezala. ‘*Qué tonto eres*’ esaten zuen, eta ‘*cuidado que eres tonto*’ batzuetan.¹⁰

Pasartearen balorea, jakina, iragan inperfektuaren erabilerak egiten du. Gauza hauek Susanak esan ohi ditu, Susana *dira*. Edo bestela esanda, hitz hauek, espresio hauek dira Susana.

e)-Oroitzea, eritzea, idaztea

Funtsean liburuak iradokitzen duena, idazle den pertsonaia nagusiaren figuraren bitartez, zera da, idaztea oroitzea dela, eta gehienetan gainera patologikoki oroitzea, mingarriak diren gauzatxo horiek, hitzak gehienetan, hausnartzea eta lixeritu ezinik ibiltzea. Horregatik, apika, eritasunari asoziatuak ageri da idazkera *Hamaika pauso*-n. Borges etor dakiguke gogora, hemen, eta bereziki “Funes el memorioso”. Baina zuzenagoa litzateke berriro ere Proust konbokatzea, eta batez ere bere *opera magna*-ko Marcel narratzaile-idazle oheratua. Noiz idazten da? Ekintzarako, borrokarako ezgai sentitzen garelarik. Halakoxea zen, baita ere, nahiz ez idazlea izan, *Ene Jesus*-eko narratzaile oheratua. Oroitzera kondentatua zegoen. Abaituak ezintasun hori bere eleberriaren *incipit* bihurtuko du, Zabalegiri egotziz bere-berea den joera: “Egin aurretik mugimendu bakoitza entseiatzen duk buruan, egiteko gauza izango haizela ziurtatzeko”.¹¹ Horrek azaldu dezake Saizarbitoriaren nahiz bere narratzaile nagusiaren nola Abaituaren joera estilistiko nabarmen bat, esaldi luze eta korapilatsuarena.

Defenda daiteke honako ideia: periodo saizarbitoriarra luzea eta konplexua da erakutsi nahi duen errealtatea bera ere konplexua delako. Ados. Baina azalpen honek ez du asebetetzen. Nik esan nezake esaldi saizarbitoriarra luzea, konplexua, bihurria, setatia, hori guztia batera dela, narratzailearen energia bitala bizitzatik idazkerara pasa delako eta indar guztia obserbazio zein deskribapen lan ahalik eta zehatzenean xahutzen duelako. Horra adibide bat, zeinetan esaldiaren luzetasuna, pertsonaiaren ekintzarako ezintasuna, eta prokrastinaziorako joera nahasten diren. Abaitua bizarginarenean bere golkoarekin:

Oroitzapenetan babestua, pena zuen bizarginak ‘*el señor está servido*’ esango zionean altxatu beharko zuelako, eta eskuak egin ziezazkioten aginduz egonaldia luzatzeko aukera ere neurtu zuen, uste osorik gabe, ordea, bai baitzekien ez zuela halakorik egingo.¹²

Eleberriaren bukerak aldera Abaitua gaixotzen da eta ez du ezertxo ere egiten sendatzeko, kontsideratuz hobeto idaten duela sukarrak daukanean:

“Inaki Abaituak ez zuen penizilinaren mesederik onetsi nahi izan. [...] Sukarrak, berriz, handiegia ez zenez, ausentzia egoera batean mantentzen zuen, apal eta baketsu nolabait ere, eta hori

10. Hamaika pauso, 74. or.

11. Hamaika pauso, 49. or.

oso eroso gertatzen zitzaion.

Beti egoera hartan bizi izan balitz gehiago idatziko zukeela iruditzen zitzaion, literatura gehiago egiteko eragozpenik handiena gehiegizko bizitasunari, gauza gehiegitaz interesatzeko joerari egozten baitzion.”¹³

Eleberriaren hasieratik bertatik Iñaki Abaituaren irribarrea aipatzen digu narratzaileak. Irribarre horren jatorria? “Mailegu literariorik gabe ezer adierazteko gauza ez dela pentsatzea”.¹⁴ Eta beste behin ere oihartzun joko bat dakusagu eleberria eta bere kanpokaldearen artean. Metalepsia deitzen zaio diegesia eta maila extradiegetikoaren arteko kutsadurari. Izan ere, mailegu literarioaren bitartekaritzarik gabe hitz egiteko Abaituaren ezgaitasuna, ez al da Saizarbitoriaren aitortza bat. Bera ere ez bailitzan gai idatzeko mailegurik egin gabe. Eta bereziki, bere aurreko obrei mailegurik egin gabe.

Badakigu ekintzarako ezgai denean zertaz oroitzen den Abaitua eta badakigu, baita ere horri esker –ahulezia horri esker, eritasun horren graziaz– idazten duela *Hamaika pauso* eleberria. Baina zertaz oroitzen da Saizarbitoria? Zeren azken beltzean, berak ere *Hamaika pauso* izeneko eleberri gotor bat idatzi baitu. Esan daiteke, nagusiki, garai historikoaz gain bere lehen aldiko obra literarioaz oroitzen dela eta *Hamaika pauso* bere lehen hiru eleberrien gauza hobereenen *medley* bat dela, edota *remix* bat, nahiz eta askoz gehiago izan osagai hauen guztien batuketaren emaitza.

4. Sampling literarioaren artea.

Egunero hasten delako eleberriari zer zor dio *Hamaika pauso*-k? Lehen-lehenik historian kokatua egonagatik gertakari txiki eta itxuraz ezdeusei eskaintzen dien arreta. Historiaz –gizarte aldaketez– hitz egiteko modu atipikoa da Saizarbitoriarena, pertsonaia aski marginalen bizitzaren detaileak aztertuz lortzen baitu ezin hobeto islatzea kontestu handia. Saizarbitoriak behinola esan bezala historia zirrikitutik ikusten da, zeharka. Edota, estilo unibertsitarioagoan esateko, Jon Kortazarren hitzak oroit ditzakegu:

Apartándose de la exposición de grandes ideas solo acepta tratar de los pequeños problemas cotidianos [...] en una búsqueda fenomenológica de la realidad.¹⁵

Abortatzera doan neska gaztearen abentura marginala aintzat hartuz *Egunero hasten delako*-n gizarte europarrean gertatzen ari zen balore eta giro aldaketaren berri ematen zigan autoreak, inoiz ezer esplikatu gabe. Hemen, Abaituaren abentura miserable-trajiko-magnifikoaren bitartez, 70eko hamarkadako euskal gizartearen radiografia sakona egiten du.

Lotura sakonago bat ere ikusten dut idazlearen *opera prima* eta itzuleraren obra handi honen artean. Izan ere, bi liburuetan ekintza zail bat ia klandestinoki edota erabat klandestinoki egitera doan pertsonaia baten bakardadea da hizpide. Ilegalki abortatzea; borroka armatua desmitifikatzen

12. Ibid., 156. or.

13. Ibid., 406. or.

14. Hamaika pauso, 8. or.

15. Jon Kortazar, Jakin, 13 eta 29 zkiak.

duen nobela bat idaztea: bi ekintza gizartearen (kasu batean gizarte burges eta giristinoaren, bestean euskal komunitate abertzalearen) bazterrerara eramaten dituztenak pertsonaiok.

Ehun metro-rekiko loturak are nabarmenagoak dira. Saizarbitoriak eman zion hasiera euskal literaturan ETaren gaia jorratzeari, eta hemen ere berriro heltzen dio gai berari. Han bezala hemen ere, gertakizun trajikoa (erahilketa/exekuzioa) eta deskribapen fisiologiko hotz eta kasik zientifikoa tartekatzen dira behin baino gehiagotan. Bestalde, bi liburuetan dialogismo elebiduna darabil errealtate efektu bortitza lortzearren. Aipagarriak dira, alde horretatik bai Susana karakterizatzeke egiten den gazteleraren erabilera nahiz goardia zibilei esanarazten dizkien hitzak. *Ehun metro*-ren garaiean esan liteke errealismoa zutela helburu gazteleraren intrusio hauek, baina *Hamaika pauso*-n efektua ez da maila berekoa. Izan ere, euskal eleberrigintza asko garatu da 1974az geroztik eta gaur egun arrunta bihurtu da euskara hainbat hizkuntza erregistrotan orduan ez bezala. Horregatik, esango genuke hemen elebitasunak helburu askoz ere estetikoagoa duela, kolore bat ematen zaiola testuari, euskal *seventies* kolore gastatu bat, *vintage* saizarbitoria tonu bat, argazki bati sepia kolorea aplikatuko geniokeen bezala photoshopen bitartez. Horren froga da bai Susanaren bai goardiei egozten zaizkien hainbat hitz euskaraz datozela liburuan –goardien “ale, goazen” famatua, kasurako, bi hizkuntzetan proposatzen digu testuak–, *Ehun metro*-n aldiz muga linguistikoak askoz ere eskrupulo gehiagorekin errespetatzen zirelarik.

Ene Jesus-ekiko loturarik ez da falta, ezta ere. Nabarmenena, dudarik gabe protagonista nagusiaren joera obsesiboa litzateke. Baita bien ekintzarako ezintasuna. Ezin ahantzi, bestalde *Ene Jesus*-en agertzen dela euskal gizonaren psikoanaliaren lehen saiakera, *mater terribilis*arekiko irentze konplexua barne. Aitak protagonistari hiltzeko orduan eskainitako ordulariaren motiboa ere *Ene Jesus*-en agertzen da lehen aldiz, funtzio sinboliko berberaz gainera. Hots, aitaren jarauntsi asumitu ezinaren irudi bihurtzen da. Ikusi dugu nola *Hamaika pauso*-n, Abaituak Zarateri mailegatzen dion aitak emandako Omega ordularia, eta nola beti damutuko den hori egin izanaz. Izan ere abertzaletasunaren gidaritzza eta tenpoa eskaintzen baitio ETari jestu horren bitartez. Ikusiko dugu nola amorruez begiratu duen Zarate ordularia bortizki erabiltzen. Bada, *Ene Jesus*-en, jada, falusaren lekukoa ezin asumitu dezake protagonistak, eta arazo horren sinbolo bihurtzen da aitaren ordularia. Aitak semeari ordularia emango ziola hiltzean agindu arren, hilkutxa barruan gorpu delarik, beilari lanetan dabilen inor ez da ausartzen hildakoaren eskumuturretik ordularia kendu eta protagonistari ematera. Ordularirik gabe geratuko da, amaren botere izugarriaren menpe, irendurik. Azkenik, *Ene Jesus*-en Juan Jose Lasa psikoanalistak izenpetzen bazituen epilogo eta “Ama” izenburudun gehigarri bat, hemen J. J. Lasa pertsonaia bilakaturik aurkitzen dugu, fikziora integraturik eta Abaituaren konfidente bihurturik.

5. Ondorioa

Belaunaldi sakrifikatu baten istorioa kontatu digu Saizarbitoriak eta sakrifizio horrek eman dituen fruituei esker, berriro itzul daiteke euskal bizitza literarioa. *Ehun metro*-rekin idazle engaiatu gisa (gaizki)ulertua izan ondoren, *Ene Jesus*-ek suposatu zuen Saizarbitoriaren suizidio literarioa. Hemeretzi urte pasa dira geroztik, hamaika pauso eman dira euskal literatura duin bat sortzeko, eta orain has daiteke Saizarbitoriaren bigarren idazlealdia, lehen aldiko Saizarbitoriari merezi zuen hilobi literarioa edo mausoleoa –*Hamaika pauso* eleberria– eskainiz.

Bariazio sinkronikoa aztertzeke metodologia(k)¹

Gotzon AURREKOETXEA

UPV/EHU, EHHA-Euskaltzaindia

Laburpena:

Ezaguna da bariazioa hizkuntzaren ezaugarri intrintsekoa dela; hizkuntzak, edozein izanik ere, barne-barnean duena. Ekarpen honetan, ikuspuntu sinkronikotik begiraturaz, bariazio mota desberdinak (diatopikoa, diastratikoa eta diafasikoa) ikertzeke metodologia desberdinak aztertzen dira: bariazio diatopikorako metodologia hizkuntza atlasek garatu dute. Bariazio diastratikorako metodologia soziolinguistikoa erabiltzen da; berriagoa izan arren, bere esparru eta teknika multzoa ongi finkatua duena. Bariazio diafasikoa soziolinguistika eta pragmatikaren bidez ikertzen da; orain artean ez bada asko landu ere, jada urratsak ematen hasia da. Bariazio hauez gain, eta itxuraz faktore estralinguistikorik ez duen oharkabeko bariazio intrapertsonalaz ere badihardu.

Abstract:

It is known that variation is an intrinsic feature of language. In this contribution, analysing from a synchronic point of view, we show different methodologies to research different kinds of variation (diatopic, diastratic and diaphasic). The diatopic variation has been developed by linguistic atlases. The methodology used for the diastratic variation is sociolinguistic methodology; it is newer than the diatopic ones, but its scope and technics are settled down nowadays. The diaphasic variation is researched by sociolinguistics and pragmatic; although it is the newest kind of variation that is studied, researchers are doing great progress to consolidate its methodology. Apart from this kinds of variation, we also show a kind of intrapersonal variation, in apparence without any extralinguistic factor.

Keywords: Linguistic variation, dialectology, sociolinguistics, methodology

Hitz gakoak: Hizkuntza bariazioa, dialektologia, soziolinguistika, metodologia

1. Lan honek Espainiako Gobernuako Ministerio de Ciencia e Innovación-en HUM2007-65094/FILO proiektuko diru-laguntza jaso du.

1. Sarrera

Hizkuntzen aldaketaren zergatiak galdetzeari utzi eta “zerk” aldatzen duen galdetzerara pasatu behar da; zer eta nor den aldaketaren motorra edo eragilea zehaztera (Labov 2001: 190).

Urte askotan tipologian aritu izan diren gehienek ez diote hizkuntza aldaketari kasu gehiegirik egin; ez da euren ikerketan kontuan hartu izan. Hizkuntza bariazioa kaotikotzat hartua izan da eta linguistikoki interes gutxikoa. Aipatua izan denetan ere, bariazioa “libre”tzat jo izan da batzuetan, aukerazko arautzat (“optional rules”) besteetan, maizegi arau erregularrik gabetzat.

Tradizionalki bariazioaren eragileak linguistikoki zokoragarri edo antzigabetzat jo izan dira² eta horien artean aditasunik eza, nekea, oroimenaren muga eta abar aipatu izan dira.

Baina jada ez da esan beharrik hizkuntza bariazioa faktore desberdin zehatzek (egitura linguistikoa, sikologikoa, soziala, kulturala...) eragiten edo galerazten dutela.

Flydal (1951: 240-257) eta Coseriu (1981)z geroztik sinkronian gauzatzen den bariazioa hiru moldetan bereizi ohi da: bariazio diatopikoa, diastratikoa eta diafasikoa³. Coseriu Flydalen diatopiko eta diastratiko kontzeptu bi hauei erantsiz diafasia eta diafasiko eta sinfasiko terminoak asmatu zituen.

Bariazio mota bakoitza ikertzeko diziplina desberdina sortu eta metodologia bereziak landu dira: bariazio diatopikoa lantzeaz geolinguistika arduratzen da eta hizkuntza atlasen metodologia erabiltzen du. Bariazio diastratikoa lantzeaz soziolinguistika arduratzen da eta metodologia soziolinguistikoaz ezagutzen da. Bariazio diafasikorako pragmatika izan behar da kontuan.

Beraz, sinkronian arituz, bariazioa hiru mailatan eman daiteke:

- Hizkuntzaren barnean (intrahizkuntzako edo interdialektala);
- Dialektoaren barnean (intradialektala edo intrahizkerakoa);
- Eta pertsona barnean (bariazio intrapertsonala).

Ez naiz arituko, nahiz oso interesgarria den, biltzen den informazioaren kalitateaz eta biltzearen arazoez. Hain zuzen ere Kretzchmar-ek Methods XIII. bitzarrean zioena baieztatuz: biltzen duguna errealitatea dela uste dugu, baina izatez errealitatearen pertzeptzioa da, ez errealitatea bera⁴. Albo batera uzten ditut ere, ikertzaile desberdinek bildutako datuak sortzen duten aldakortasuna, edo transkribaketa inpresionistek sorturikakoa (Labov 2001: 151). Albo batera utziko dugu, azkenik, hizkuntza aldaketa edo bariazioaren zergatiak aurkitzea, nola hasten den aldatzen oraindik misterioa baita (Labov 2001: 466).

2. Bariazio geolinguistiko edo diatopikorako metodologia

Hizkuntza atlasak datu-bilketa zein datuen argitalpenerako metodologia zehatza garatu dute. Bariazio diatopikoa jaso eta adierazteko metodologia honek bere garaian ikaragarritzko aurrerakuntza

2. “Linguistically irrelevant”, dio Linell-ek “The written language bias in Linguistics” argitalpenean: <http://langs.eserver.org/linell/chapter11.html>.

3. L. Flydal izan zen diatopia eta diastratia kontzeptuak eta ikuspuntu sintopiko eta sinstratikoa asmatu zituenak.


4. “Dialects as we know them are objects whose existence comes from perception of reality not from reality itself”... “any dialect... exists as an observational artefact from perception” (biltzarreko abstract-liburukian).

ekarri zuen hizkuntza bariazioaren alorrean. Hizkuntza atlas guztietan, aldiz, ez da metodologia bera erabili zentzu hertsian: ALFen hasi eta ohikoetan erabili zena asko garatu da ALLOc eta batez ere EHHAn. Azken bi hauean hiztunen ezagutza pasiboaz egin den hausnarketak garrantzi handia dauka hizkuntza bariazio edo aldaketa azterterakoan (Aurrekoetxea 2002: 60). Ez dugu Labov-en aipamen bat ekarri besterik honetaz oharrezko (2001: 246):

“Even if the United States, where foreign languages are usually abandoned after two generations, speakers of the first native generation will have some active knowledge of the mother tongue of their parents, and almost always a reasonably strong passive knowledge.”

EHHAn, hiztunen ezagutza pasiboan sakondu asmoz, proposamenen sistema gaineratu da datu-bilketa metodologian. EHHako kartografian proposatutako hitzen bat hiztunak herrikotzat jo eta onartu duenean maparatu da dagokion kolorezko zirkulu baten bidez. Ez da maiz gertatzen, noizbehinka hitzen galte prozesuan zertan gauzatzen den atzeman daiteke, 11090 galdera ‘anoche / hier soir /last night’ mapan bezala (ikus 1. mapa). Imaginatu dezagun mapa hau proposamen onartuei dagokien zirkulutxurik gabe eta 2. erantzunei dagokien zeharkako tramarik gabe, hori izango litzateke ohiko hizkuntza atlasetako mapa. Aldiz, EHHAn erabilitako inkesta-metodologiari esker ohiz biltzen ez zen informazio asko jaso da. Kasu honetan jaso diren proposamen guztiak “bart” hitzari edo bere aldaerei dagozkie: 51 kasutan bildu da hitz hau proposamen gisa; hau da, lekukoak ezagutzen du, baina ez du bere kasa eman eta proposatu zaionean herrikotzat jo du.

1. Mapa



Mapa honek erakusten duena zera da: datu-bilketarako metodologia konkretu batek ea errealitate osoa biltzen duen ala errealitate horren zati bat baino ez. Honek orain artean, dialektologia

tradizionalean egin diren monografietan datuak biltzeko erabili den metodologia berrikusi beharra erakusten du. Hausnarketa egin beharko genuke ea metodologia aproposa erabili den eta errealtate osoa jaso ordez haren zati bat baino ez den jaso.

Atlasgintzan erabiltzen den datu-bilketarako metodologia egokia izan arren, maiz izan dugu “galdeketa” egiten dugun sententzia. Eta konturatu gabe hel gaitezke lekukoa nazkatzeraino, harentzat bat ere interesik ez duten gure galderekin, inoiz bortxatzeraino ere. Honen adibide bat baino gehiago bildu da dialektologian (Aurrekoetxea & Perea 2009).

Datuen zuzentasun eta egokitasuna zaindu behar da, bai biltzean nola aztertzean, oker jokatzeko arriskua bizi-bizi dagoelako: horietako bat ikertzaileak hiztunak emandakoa “zuzendu edo “moldatu” nahi izaten duenean gertatzen da; aldaera estandarren eraginez eta batez ere semantika kontuetan ematen dira halako “zuzenketak”. Ikertzaileak beti present izan behar du, hizkuntzaz datuak biltzeko beharrezko duen hiztunak baino gehiago jakin arren, hizkuntzaren erabileran hiztun hori “katedratikoa” dela edonongo eta edonolako unibertsitatean, hain zuzen ere “euskaraz baizik ez dakiten horiek ezpaitakite besterik egiten, eta ondorioz ezinezko zaiela beste hizkuntza edo molde baten eraginik izatea” edo bere hizkera baino entzun ez duen horrek, ezin duela inguruko hizkeren eraginik izan. Baina noiz edo noiz gertatzen da ikertzaileak lekukoa “erratu” dela ustea eta haren esanak aldatzen eta interpretatzen aritzea. Halakoetan, izan ere, erratzeko arrisku biziaren dagoena ikertzailea izaten da. Horregatik, guztiz ados nago hizkuntza atlasgintzan indarrean dagoen irizpide nagusi batekin: ez da interpretaziorik egin behar; eta ezinbestekoa bada, ahal denik eta interpretazio txikiena egin.

Baina, hizkuntza atlasgintza bariazio geolinguistikoa aztertzean erdibidean gelditu da. Ez du bariazio diatopikoa bere osotasunean aztertzen. Datuak biltzeko metodologia garatu badute ere, hizkuntza atlesek ez dute garatu hizkerak bereizteko eta gutxiago sailkatzeko metodologiarik. Hizkako edo hizkuntza ezaugarrikako mapak erakustera mugatu dira, isoglosak erabiliz. Uzkur, oso uzkur jokatu du hortik aurrera, salbuespen gutxi batzuek.

Baina jada sortua da atlasetan biltzen den bariazio diatopiko hori erabiltzeko tresneria: dialektometria.

Zer da dialektometria? Bada, hizkuntza atlasetan biltzen diren datu guztiak hartuz hizkeren arteko desberdintasunen azterketa kuantitatiboa.

Azterketak kuantitatiboa ala kualitatiboa izan behar duen galdetu da behin baino gehiagotan. Eta honetan ere formazio eta ikusmolde desberdinek eragin handia dute. Baina nire ustean batak ez du bestea kentzen. Azterketa kuantitatiboa kualitatiboari laguntzeko tresna baino ez da eta; hain zuzen ere arbolak basoa ikusten uzten ez duenean erabili behar den tresna.


Tresna hau sortu artean, hizkeren arteko desberdintasunak aztertzean, azterketa kualitatibora mugatu dira dialektologoak, nagusiki. Horretarako hizkuntza ezaugarri batzuk erabili izan dira eta ez denak: ezagunenak eta erabilgarrienak, sarriegitan atomizaziora joz. Orain artean nagusiki dialektoen konparatze atomista egin da (euren artean loturarik ez duten datu edo ezaugarri gutxi batzuk erabili dira sarri). Hortik harat jo behar da. Datu-kopuru handiak erabiliz hizkeren sailkapen hierarkikoetaraino helduz.

Datuez gain, ikertzailearen iritzia ere oso begibistakoa da ezaugarriak aukeratzean edo baztertzean. Ezaugarri batzuek pisu handiagoa omen dute askoren ustez, beste batzuek baino, hizkuntza sisteman joko garrantzitsuagoa jokatuko balute bezala. Azterketa kualitatiboaren aldekoek maiztasunaz hitz egiten dute ezaugarri batzuek beste batzuek baino pisu handiagoa behar dutela defendatzean, edo diakronikoki bilakaera handiagoa (aldaketa gehiago) izan dutela. Baina, hori esaten dutenean ez ote dira irizpide kuantitatiboak erabiltzen ari kualitatiboa defendatzeko?

Dialektometriak (DM) eskaintzen dituen baliabideen artean sailkapen hierarkikoak egiteko aukera dugu gaur egun. Tresneria dialektometrikoak eskaintzen dituen baliabideen artean dendrograma dugu mota honetako sailkapenak egiteko erabilgarrienetako bat.

Eman dezagun Iparraldeko hizkeren sailkapena egin nahi dugula eta badugula datu-kopuru handi bat datu-base batean eraturuta. Adibidez, Bourciez bildumako euskal testuena.⁵ Testu horietan agertzen diren hiztegia eta hizkuntza ezaugarriak hartuz 281 erregistro dituen datu-base bat eraiki ondoren euskal testuak agertzen diren 138 herriren sailkapena egin dugu eta dendrograma batean ezarri (ikus 2. irudia).

2. Irudia




Dendrogramak 138 hizkeren sailkapen hierarkikoa erakusten digu, zein diren multzo nagusienak azalaraziz. Dendrograma honetan azaltzen diren eta azter daitezkeen arazo asko dugu,

5. EUDIA ikerketa-taldeak hiru liburu argitaratu ditu Bourciez-ek bildutako euskal testuekin (Aurrekoetxea & Videgain 2004, Aurrekoetxea, Iglesias & Videgain 2004, Aurrekoetxea, Iglesias & Videgain 2005).

baina horiek gaur albo batera utziz, erakusten dituen multzo nagusienak nola dauden egituratuta argiki ikus daiteke.

Horiek zein eremu geografiko hartzen duten, edo horien egituraketa geografikoa ikusteko dendrograma hau mapa batera irauli behar da (ikus 3. irudia).

3. Irudia



Mapa honek duen potentzialitatea ikaragarria da. Jada ez da ezaugarri batzuk hartuz eta banaka eraikitzen den mapa. Mapa hau eraikitzeko 38.778 datu erabili dira. Ez du bat ere zerikusirik orain artean Euskal Herrian eta euskararen kasuan eraiki diren mapekin. Eta *sensu stricto* hartuz lehen hizkeren sailkapena islatuko luke.⁶

Gure kasuan proiektu honetan bildu diren datu guztiak erabili ditugu mapa hau egitean. Ez direla asko esango du datu-baseetan aditua den norbaitek. Eta arrazoa du, erabili litezkeen datuak milaka eta milioka konta daitezkeenean, baina jada azterketa beste plano batean kokatzen da.

DM-k zinez ikaragarri laguntzen du datu diatopikoen sailkapen egoki bat egiten eta hizkuntzaren egituraketa geolinguistiko edo diatopikoa zertan gauzatzen den argitzen. Esan daiteke

6. Hizkeren sailkapen eta erkaketaren arteko desberdintasun semantikoa beste baterako uzten da.

geolinguistikak bere muturreraino joateko behar izan duen tresna dela, eremu bateko egituraketa geolinguistikoa zehazten duelako.

Hala ere, geolinguistikak hizkuntza aldaketa edo bariazioa badela ziurtatzen edo egiaztatzen du eta zein edo nolakoa den. Ez du hizkuntza aldaketa horren eragilea zein den zehazten, ezta hizkuntza aldaketa horren abiadura, ezta hizkera baten barnean egon daitekeen aldaketa ere. Hizkuntza aldaketa sinkronikoaz ohartzeko lehen urratsa da: hizkuntza batean aldaketa badela ohartzea eta nolakoa den aldaketa hori erakustea. Ez aldaketaren izaera eta ezaugarriez sakontzea. Ordura arte hizkuntza aldaketa diakroniaren kontua bakarrik zela uste zen eta ikuspegi aldaketa handia ekarri zuen hizkuntzalaritzara.

Hizkuntza aldaketa sinkronikoaren zergatiak eta eragileak ikertzeko soziolinguistika fasera eman behar da pausua.

3. Bariazio soziolinguistiko edo diastratikoaren metodologia

Soziolinguistika terminoa nahasia da, gauza desberdinetarako erabilia izan delako (Hernández Campoy & Almeida 2005: 23 eta h.). Guk 'Variationist Sociolinguist' bezala ezagutzen den diziplina izango dugu kontuan, hizkuntzaren aldaketa edo bariazioa ikertzen duena, alegia. Ikusmolde honen arabera, abiapuntua jada ez da hizkuntzaren homogeneitatea, tipologian edo dialektologia tradizionalen ari direnentzat bezala, hizkuntzaren heterogeneitatea baizik.

“Bariazio-soziolinguistika” deitua izan denaren ekarria bi planotan ematen da:

- hizkuntza bariazioa herri berean edo komunitate berean ematen dela;
- bariazio hori ez dela “librea”, faktore sozialek eragina baino.

Soziolinguistikaren ekarpenaren garrantzia bariazioa aztertzean faktore eragileen definitze eta zehaztean dago. Hauen artean hizkuntzaren barne eta kanpo faktoreak (sozialak) agertzen dira (Labov 1994, 2001). Ordura arteko bariazio “librea” ikusi da oso sistematikoa dela eta korrelazionatuta dagoela faktore linguistiko eta sozial, geografiko edo etnografikoekin. Arlo honetan berebiziko garrantzia dute Labov (1983) eta Trudgill-en lanek (1974, 1978).

Eredu soziolinguistiko asko dago. Hemen nagusiki indar berezia hartu izan dutenez arituko gara. Aldaketaren hizkuntzaren barne faktore gisa hauek aipatzen dira: katearen aldaketa (chain shifting), fusioak eta eszizioak (mergers and splits), soinu aldaketaren erregularitasuna... (Labov 1994). Faktore sozialen artean adina, generoa, maila kulturala, maila soziala, etnia, erlijioa... (Labov 2001).

Jada ez da helburua zer aldatu den aztertzea, zer ari den aldatzen baizik. Eta zein diren aldaketa horren eragileak edo liderrak zehaztea.

3.1. Datu-bilketarako metodologia

Hizkuntza aldaketaren faktoreak ikertzeaz gain ikusmolde honetan datu-bilketaren metodologian urrats berriak eman dira. Helburua hizkuntza aldatzen ari den unea atzematea bada, hizkuntzaren zein ezaugarri den aldatzen ari dena aurretik egin behar den behaketak emango digu. Egia esateko, garrantzi handikoa da hizkuntza erkidego batean ikerketa soziolinguistiko bat abian ezarri aurretik hizkera horren sistema linguistikoaren ezagutza handia izatea (Hernández Campoy & Almeida 2005: 115). Behin erabakirik zein osagai ikertu, aldaketaren eragileak zein diren ikertzera bideratzen dira ahaleginak.

Obserbatzailearen paradoxa (ikertu nola hitz egiten duten hiztunek sistematikoki behatuak ez direnean, behaketa sistematikoz baino ezin denean hori egin: Labov 1983: 209; Hernández Campoy & Almeida 2005: 11) gainditzeko bideak jarri ditu soziolinguistikak edo gutxienez gutxitu, eta ahal

denik eta hizkera naturalenaren laginak lortu. Hona hemen metodo batzuk:

3.1.1. Behaketa kontrolatua

Ikertzaileak gidoi batez edo galdera bidez gidatzen du inkesta edo elkarrizketa. Zein da inkesta edo elkarrizketaren arteko desberdintasuna? Inkestan galderak egiten dira, zeintzuk informatzaile guztiei modu berean egiten zaizkien. Elkarrizketan ez.

- a) Inkestak eta galdesortak. Galdesortak zuzenak, ikertzailea bertan delarik, edo zeharkakoak, posta edo bestelako bitartekoen bidez eginak, izan daitezke.
- b) Elkarrizketak. Elkarrizketetan ikertzailearen presentzia ezinbestekoa da, zeinak galderen bidez, gidoi bat jarraituz, bere helburuak beteko dituen.
 - b1) Bakarkako elkarrizketa programatua edo aurrez erabakia. Soziolinguistika bariasionistan gehien erabiltzen den sistema da. Ikertzaileak gidoi bat erabiltzen du, elkarrizketa gidatzeko.
 - b2) Elkarrizketa anonimo azkarra. Ez da grabatzen eta informatzailea ez da konsziente izaten behatua dela (Labovek erabili du New Yorken (1966a eta 1972a) eta Philadelphian (1981, 1984).
 - b3) Telefono bidezko elkarrizketa. Bertaratzea zail gertatzen denean egin ohi da. Labov-ek erabili zuen Lower East Side-i buruzko ikerketan (1966a) eta beste batzuetan ere.
 - b4) Testuen irakurketa eta bikote minimoak. Honela jasotako datuek ez omen dute oinarri ona eskaintzen analisi interpretatiboa egiteko (Hernández Campoy & Almeida 2005: 141).
 - b5) Behaketa partehartzailea. Behaketa partehartzailea hizkuntza erkidego baten hizkera naturala lortu nahi denean erabiltzen da. Kasu honetan taldeko hiztun batekin kontaktua egin ondoren haren laguntzat aurkezten da eta 'lagunaren laguna' delakoaren teknika erabiliz gainerakoek konfiantza lortuz joan behar da, euren portaerak asumituz eta eurentariko bat balitz bezala jokatzuz. Behaketa mota hau askok erabili dute. Horien artean: Labov (1973 South Central Harlem-eko gazte taldeak ikertzean), Lesley Milroy (1980, Belfast-eko ingelesaz), Penelope Eckert (1989, 2000 Detroiten)... Abantaila asko dituen arren, baditu bere desabantailak ere: egoera kontrolagaitza da, ordu asko behar dira, eta abar (Hernández Campoy & Almeida 2005: 143).

3.1.2. Behaketa ez-kontrolatua

Labov-ek aurretik zehaztutako bakarkako elkarrizketetan jasotako datuak egiaztatzeko elkarrizketa anonimo eta arinak erabili zituen, eta baita bat-bateko behaketa anonimoak kalean eta ostatuetan ezkutuko grabaketak eginez (Labov 1966a: 431-437).

Hautetan ez dago planifikaziorik eta ezin da alde aurretik jakin zer bilduko den. Horregatik, erabili izan denean ere beste molde batean bildutako datuak egiaztatzeko izan da.

3.1.3. Komunikabideen behaketa: ahozko artxiboen erabilera

Nahiz jasotzen den estiloa formalagoa izan, zuzeneko emanaldietan eta jendeak parte hartzen duenean, gertakarien eraginpean direnean (lurrikara, uholde...) erabilgarria den informazioa biltzen da.

Horrela jasotako informazioa oso erabilgarri izan daiteke bariazio estilistikoa ikertzeko. Mota honetako ikerketetan berezitu da Allan Bell Zelanda Berrian, beste batzuen artean (Hernández Campoy & Almeida 2005: 144).

Jaso nahi den hizkera motara bideratuta egon behar da behaketa. Beti ere datuak ordezkarriak izan behar dira. Hori dela eta, corpus handiekin lanean hasi beharra ikusi zen eta hortik sortu dira gerora corpusekin lan egiteko joera eta zaletasuna. Datuteria handia behar izan da aldagaien maiztasuna kontuan hartu behar delako.

3.2. Datuen analisisia

Datuen analisisian metodo kuantitatiboak eta kualitatiboak erabiltzen dira. Hernández Campoy & Almeida-k (2005:193) analisi kuantitatiboari 'positivista' ere deitzen diote eta kualitatiboari 'interpretatiba'.

Bien arteko desberdintasunak honela zehazten dute Hernández & Almeidak (2005: 193):

Teknika kuantitatiboek (1.3.1. parrafoan aztertu dira):

- arau orokorren arabera eratutako gertakari objektiboak aztertzen dituzte;
- datuak galdesorta estandarizatuekin biltzen dituzte;
- errealitate soziala aldagai batzuen arabera segmentatzen dute;
- prozedura estatistikoak erabiltzen dituzte;
- objektibotasunari ematen diote lehentasuna;
- prozedura deduktiboak erabiltzen dituzte, zeinetatik hipotesiak egiaztatuko dituzten.

Teknika kualitatiboak aldiz:

- behaketa zuzenez baliatzen dira;
- datuak tratatzeko prozedurak ez dira hain zehatzak, kuantifikazioa albo batera utziz;
- subjektiboari lehentasuna ematen diote, objektibotasunaren gainetik;
- prozedura induktiboa erabiltzen dute, datuetatik abiatu egoera interpretatzeko.

Evert Gummerson (1991) aipatzen dute Hernández Campoy & Almeidak (2005: 194) bi paradigmen arteko desberdintasunaz diharduelako.

Soziolinguistikari gehien erabili diren prozedurak kuantitatiboak izan dira, nahiz kualitatiboak ere badiren (Almeida 1999, 2003: 28-35).

3.2.1. Metodologia kualitatiboa

Ikertzaile askok erabili dute; Cheshire (2000) da horietako bat: 11-15 urte arteko gazteen hizkera lantzen du. Estatistika deskriptiboa (maiztasun absolutuak eta erlatiboak) ere erabiltzen du, maiz erabiltzen baita metodologia kualitatiboa.

3.2.2. Metodologia kuantitatiboa

Hona hemen metodologia honetan kontuan izan behar diren moldeak:

a) Estatistikako oinarrizko kontzeptuak

- Lagina eta unibertsoa: batzuetan lagina erabiltzen da, besteetan unibertsoa. Aldagai linguistikokoak aldagai dependienteak dira. Aldagai sozialak (adina, klase soziala, generoa) aldagai independenteak dira.
- Aldagaien katalogazioa: nominalak, ordinalak, tartekakoak eta arrazoizkoak. Aldagai kualitatiboak (sexua) eta kuantitatiboak (formante bokalikoen altuera...) hitz egiten da,

baina hobe da lau kategoriez hiz egitea: nominalak, ordinalak, tartekakoak eta arrazoizkoak (Hernández Campoy & Almeida 2005: 202an azalpena). Batzuetan aldagai kualitatiboak kuantitatibotzat hartzen dira eta alderantziz.

- Estatistika deskriptiboa eta inferentziala. Estatistikako bi adar nagusi dira.
- Hipotesiak: hipotesi nuloa eta lan hipotesia.
- Estatistika parametrikoa eta ez-parametrikoa. Parametrikotan erregresio analisia edo *t-test* analisia dira ezagunenak. ANOVA analisia da ez-parametrikotan garrantzitsuena.
- Joera zentralaren neurriak ("Medidas de tendencia central"): media, moda eta mediana. Media aritmetikoa, moda (gehien errepikatzen den balioa), mediana (balio horretatik gora eta behera dauden balioen kopurua bera da).
- Bariabilitate eta desbideraketa neurriak. Bariabilitatea neurtzeko *bariantza* (S^2) kontzeptua elaboratu da. *Desbideraketa tipikoa* (S) varianza-ren erro karratu bezala definitzen da.
- Joera zentralaren eta bariabilitatearen neurriak.

b) Medien diferentzietan harremanetan dauden neurriak. Hauen artean *t-testa*, *bariantza* eta *kobariantza* analisiak; eredu probabilistikoak (ANOVA):

- lagin independentetarako *t-testa*. Bi lagin multzotako mediak konparatzen ditu eta berdintasun edo desberdintasunaren adierazpen gradua konprobatzen du, eta baita medien inguruko datuen distribuzioa. Bi aldagai erkatzen ditu: aldagai independentea (karakterizazio nominalarekin) eta dependientea (kuantifikagarria);
- harremanetan dauden laginetarako *t-testa*;
- ANOVA analisia lagin independentetarako;
- bi faktoreen ANOVA analisia;
- ANOVA analisia harremanetan dauden laginetarako;
- *kobariantza* analisia (Hernández Campoy & Almeida 2005: 231).

c) Aldagaien arteko harremana lantzeko honako lanabesak erabiltzen dira:

- kontingentzia taulak: *Txi-karratua* (χ^2);
- korrelazioa: tartekako aldagaien arteko harremana ikertzen du (pertsonek pisua, goiera, adibidez edo hitzun batek ekoizten dituen jatorrizko formen kopurua eta sare sozialaren artean...). Korrelazio indizea Pearsonen r -aren bidez adierazten dira;
- erregresio lineal sinplea;
- erregresio anizkoitza.

d) Estatistika ez-parametrikoa:

- laginaren normalitatea: Kolmogorov-Smirnov-en testa;
- harremanetan dauden bi laginen probak: Wilcoxon-en testa;
- harremanetan ez dauden bi laginetarako probak: Mann-Whitney-ren testa;
- Friedman-en ANOVA;
- Kruskal-Wallis-en ANOVA.

e) Erregresio analisia VARBRUL programetan:

- VARBRUL 2S programa. Programa hau David Sankoff-ek diseinatu zuen bariazio soziolinguistikoa analizatzeko. Helburu nagusia: aldagai kualitatiboen erregresio analisia egitea, zeinen bidez SPSS programa estatistikotik bereizten den (honek aldagai

kuantitatiboen erregresio analisisa egiten baitu) (Hernández Campoy & Almeida 2005: 267-282);

- GOLDVARB 2001 programa (Hernández & Almeida 2005: 282-286).

f) Datuen interpretazioa

Prozedura kuantitatiboak tresna gisa ulertu behar dira; hizkuntza bariazioa modu errazago eta argiago batean ikusteko tresnak dira.

Ondorioz, prozedura kuantitatiboen emaitzak interpretatu behar ditu ikertzaileak, ezin ditu besterik gabe utzi. Interpretatzean aldagai linguistikoak izan behar ditu gogoan eta horiek zelan aldatzen diren, zein norabidetan eta zerk eraginik argitu behar du.

Era horretan, erabilitako tekniken eraginkortasuna ebaluatu behar du, beraien arteko osagarritasuna aztertuz.

Eta ondorioz, emaitzen esanahi edo adierazpen teorikoa baloratu behar da, beste ikerketa batzuekin konparatuz eta oraindik egin beharreko bidea zein den adieraziz.

Orain arteko emaitzak ikusita, gauza batzuk behintzat nahiko argi azaltzen dira:

- hizkuntza aldaketa ez duela gehienetan faktore sozial bakar batek eragiten;
- bide beretik, belaulaldi aldaketak (adinak) ez duela eragin definitiboa hizkuntza bariazioan;
- hizkuntza aldaketa maizen eragiten duena ez dela sozio-kulturalki goi-mailakotzat hartzen den jendea; erdi/behe maila eta emakumezkoak direla aldagai prestigiotsuenak erabiltzen dituztenak gehienetan;
- hizkuntza aldagai tradizionalen aldekoenak jende adindua eta maila sozio-kultural baxuena duten emakumezkoak izaten direla;
- sare sozialen garrantzia gero eta handiagoa dela.

3.2.3. Euskararen kasuak

Oraindik gaztea den EUDIA ikerketa-taldeak euskararen bariazio sinkronikoa ikertzea du helburu nagusia. Euskararen estandarizazioak hartu duen indarra kontuan harturik, garrantzi handikoa da euskararen bariazioa ikertzen dugunontzat, hizkeretan zehar zer gertatzen ari den ikertzea. EAS proiektua⁷ aldaketa hori zertan gauzatzen ari den ikertzeri dator. Bestetik, EDAK ikerketa-proiektua abiarazi du 2007an.⁸

Ikerketa hauek biak W. Labov-en hitzetan “Observations in apparent time” gisakoak dira. Hots, hizkeren aldaketa une honetan zertan gauzatzen ari den ikertzea. Proiektu bietan Euskal Herriko 100 hizkera hartu dira ikergai eta hizkera bakoitzean adin faktorea soilik ikertuko da⁹, baina EAS proiektuan lexikoa, morfologia eta sintaxia ikertzen den bitartean, EDAK proiektuan azentua eta intonazioa ikertzen dira.

Adina faktore sozialari dagokionez bi adinetako jendea aukeratu da ikerketa hauetarako: a) helduak (45 urte inguruok); b) gazteak (25 urte inguruok). Haien euren hezkuntza hizkuntza

7. UPV/EHU-k babestutako ikerketa-proiektua da (UPV05/72)

8. Madrilgo MiCINN ministerioak (HUM2007-65094/FILO) diruz lagundutako 3 urteko proiektua da.

9. EAS proiekturako ikus Aurrekoetxea & Ormaetxea (2006); EDAK proiekturako Aurrekoetxea & Ormaetxea (argitaratzeko).


arrotzean burutu dute eta euskara batuarekin duten harremana nagusiki seme-alaben formazioarekin lotuta dago; hauek euskaraz egin dituzte ikasketak eta euskara batuaren ezagutza jasoa dute.

Gainerako ezaugarrietan belaunaldi bakoitzari dagozkion ezaugarriak bilduko lituzkete: helduari dagokionez, lantegi batean lan egiten duena, gazte unibertsitarioa...

EAS zein EDAK oraindik datu-bilketa fasean dauden arren, herri zenbaitetako emaitza batzuk emateko moduan aurkitzen gara. Halatan, EAS proiektuko Bizkaiko herri batzuetako (Dima, Otxandio, Etxebarria eta Bolibar)¹⁰ datuak eskainiko dira (ikus 4. irudia).

4. Irudia

EAS proiektuak euskara estandarrak hizkera desberdinetan duen eragina neurtzeko aukera ematen du. Lehen emaitzen arabera belaunaldi gaztearen hizkera informalean euskara batua edo estandarraren eragina %10ean kokatzen da Bizkaiko herrietan: datuak Dimako %13-tik



Bolibarko %8,3 bitartean kokatzen dira. Oraindik goiz da erabateko ondorioak ateratzeko, baina Aurrekoetxearen (2006: 143), aurreko ikerketetan lortutako datuak berrestera datoz.

4. Bariazio estilistikoa edo diafasikoa

Harreman sozialen araberako bariazioa da bariazio diafasikoa. Bariazio hau izendatzeko *erregistro* eta *estilo* hitzak ere erabiltzen dira.

Bariazio mota hau pragmatikaren esparruan kokatzen da. Izan ere, pragmatika zera da: "(...) una disciplina que toma en consideración los factores extralingüísticos que determinan el uso del lenguaje, precisamente todos aquellos factores a los que no puede hacer referencia un estudio puramente gramatical: nociones como las de emisor, destinatario, intención comunicativa, contexto verbal, situación o conocimiento del mundo van a resultar de capital importancia" (M. Victoria Escandell Vidal 1993: 16).

10. Dimako datuetarako Aurrekoetxea (2008); Otxandiokoetarako Ormaetxea (2008); eta Bolibar eta Etxebarrikoetarako Ezenarro (2008).

Bariazio diafasikoa ez da gainerakoak bezainbeste ikertua izan orain artean. Oraindik ez da metodologia zehatzik garatu; horrela mintzatzen da F. Moreno zera dioenean (1990: 61-69)¹¹: “En cuanto a la variación diafásica, aún no se ha creado un complejo epistemológico que la investigue en todos sus detalles, sin embargo ha sido objeto de atención -eso sí, algo precaria- por parte de la pragmática o de la misma sociolingüística” (ikus López Morales 1993-1994 ere).

Baina hasiak dira jada hizkuntza corpus batzuetan bariazio diafasikoa kontuan hartzen. Horietako bat dugu *L.I.P. corpusa* (*Lessico di Frequenza dell'Italiano parlato* (T. De Mauro eta beste 1993). Bost kategoria desberdinetan berezi dute.

C-ORAL-ROM proiektuak (<http://lablita.dit.unifi.it/coralrom/>) bete-betean ikertzen du mota honetako bariazioa (Cresti-Moneglia 2005, 2007).

Bariazio diafasikoaren faktore nagusienak hauek dira:

- Erregistro parametroa, zeinetan erregistro formal eta informala bereiz daitezkeen.
- Kanal parametroa, zeinetan aurrez aurreko komunikazioa, telefonozko interakzioak, edota telebistakoak aztertzen diren.
- Elkarrizketaren egitura parametroa, zeinetan hitz txanda egiturak elkarrizketetan edo monologoaren egiturak aztertzen diren.
- Testuinguru sozialaren parametroa: zeinetan familia edo bizitza pribatuari dagozkion interakzioak vs. jende aurre edo artean ematen diren interakzioak aztertzen diren.
- Erabileraren eremuaren parametroa: zeinetan legeria, elkar truke, ikerketa, irakaskuntza, eliza... aztertzen diren.

Miguel Casasen (1993) arabera diafasiak ondoko bi arloak hartzen ditu:

- 1) “estilo de lengua” desberdinak: egunerokoak, jendaurrekoa (edo arranditsua), familiarra eta arrunta edo baldarra;
- 2) ahozkoa eta idatziaren arteko desberdinketa.

EHHaren helburua bariazio geolinguistikoa aztertzea bada ere, galdera batzuetan bariazio diafasikoa ere landu da, sistematizazio osoz ez bada ere. Hala nola gizarte tradizionalan tabu izan diren gaietan (sexu kontuetan adibidez) eta haurren hizkuntza islatu nahi izan denetan. Adibidez, herri batzuetan [embárasaða], [espéruen], [au rðun] formek emakumeraren egoera adierazten duten arren, ez dira nonahi erabiltzen, eta bakoitza egoera desberdinetan erabili behar da, mintzakidearen arabera, lekuaren arabera... Antzera esan behar da beste herri baten jaso diren [éspant átan], [okhypp], [isóra] formetarako ere.

Bariazio mota hau jasotzeko metodologian lekukoa edo hitzuna egoera birtualetan ipini behar da eta esaldi bat itzularazteko eskatu behar zaio. Nola esango lioketen herriko apezari, medikuari, lagunei tabernan, etxean, lagunei. Horrela erregistro formala eta informala arteko aldaerak bilduko lirateke.

5. Bariazioaren oharkabetasuna

Hiztunen artean (bariazio dialektala edota bariazio intradialektala) ematen den bariazio diafasikoaz gain, bada beste bariazio mota bat askoz ere zailagoa dena atzematen, baina datu-

11. Gaiari sakontzeko, ikus Moreno Fernández (1992) eta Cestero (1992).

bilketarako metodologia egoki batek azalarazten duena: bariazio intrapertsonal oharkabea. EHHako datuetan bariazio mota hau sarri bildu da, erabili den inkesta-metodologiari esker.

Honen ezaugarriak ondokoak dira:

- a) mezu bera,
- b) testuinguru bera,
- c) elkarrizketatzailea bera,
- d) hiztunaren intentzioa bera. Maila estilistikoa bera, ustez bederen.

Zein da aldatzen den faktorea komunikazio egoera horretan? Beharbada hizkuntzaren barne faktoreen eraginez sortutako bariazio gisa aurkeztu beharko da. Berez, hizkuntzaren aldaketa, ekonomiaren arabera, forma simple eta errazagoak ekoiztera bideraturik dago. Hau fonologikoki errazagoak diren formetara egokitzea izango litzateke.

Zein da konturatu gabeko aldaera hauek ezartzeko lekua? Aldaera sozial-diastratikoetan ala aldaera diafasikoetan? Ala aldaeren sailkapena handitu behar da?

Galdera gehiago ere egin daitezke oraindik guztiz garatu gabeko alor honetan. Baina denen gainetik agian ondoko hau ipini beharko genuke: noraino da oharkabea bariazio intrapertsonala?

EHHako datuetara itzuliz, bildu den informazioaren arabera esan daiteke ia ez dagoela galderarik herriren batean bariazio mota hau jaso ez duenik. Adibide gisa bakar batzuk azalduko ditugu:

- bokalarteko -g- galtzea. Euskarari gertakari hau ohikoa dela edonork daki. EHHako datuetan maiz agertzen da arau hau, baina ez beti. Horietako kasu bat “negu” hitzari dagokio (10120 galdera): “negu” hitzeko -g- hori ez baita inon galtzen. Azalpen sinkronikoaren bilaketan zergatik ez den -g- hori inon ere galtzen galdetu behar da;
- berdintsu esan daiteke bokalarteko -r- hotsari buruz;
- bokalen tinbre-aldaketa da beste bat;
- diptongoaren izaera hurrengoa.

Hauetako aldaketa batzuk elokuzioarekin lotuta dauela esan daiteke, mantso edo azkar hitz egitean hitzak eta formak desberdin ekoizten baitira. EHHAn bildu diren erantzunetan ezaugarri hau aztertu egiten da.

Zein metodologia erabili behar den mota honetako bariazioa ikertzeko? Garbi dago galdera-erantzuna sistema erabiliz emaitza urriak lortuko direla. Hiztunari bera konturatu gabe behin baino gehiagotan hitza erabilarazi behar zaio, behin eta berriz mota honetako aldagarritasuna ikertu nahi bada. Horretako, elkarrizketa gidatuen metodologia egokia izan daiteke, modu “natural” edo “naturalago” batean lortzen direlako gura diren hitzak eta aldaerak.

6. Ondorioak

Hizkuntzalaritzan ari den jendeak kontuan hartu behar du hizkuntzaren aldagarritasuna sartu behar dutela euren teorian, hizkuntzaren barne-barneko, bihotzeko, ezaugarri gisa. Bariazioa kontuan hartzen ez duen ikerketa, partziala dela deritzogu.

Bariazio diatopikoari buruzko metodologia ondo ibilia da bai kanpoan, bai gure artean ere. Hala ere, datuak bildu eta aztertzean beti ez da behar den zehaztasuna erabili.

Ezin da gauza bera esan bariazio diastratikoari buruz. Biluzik ez bada ere, hasi-masietan aurkizen gara gure artean. EUDIA ikerketa-taldea hizkuntzan ematen den bariazio mota hau ikertzeko helburuz sortu da, Labov-en ildotik sakontzeko asmoz. Eta bai EAS ikerketa-proiektua, eta bai EDAK ikerketa-proiektuaren helburuetan horixe bera dago. Denborak esango noraino

heldu garen.

Bariazio diafasikoa badela badakigu, baina ezer gutxi gehiago. Asko dugu oraindik jakiteko eta ikertzeko hizkuntza bariazioan ari garenok.

Azkenik, aurreko kasuekin lotura sendorik ez duen bariazio intrapertsonal oharkabea ere badela egiazta daiteke EHHako datuetan. Baina hori lortzeko metodologia aproposa oraindik ez da garatu.

Bibliografia

- Aijón Oliva, Miguel Angel, 2004, "Elementos para un corpus de variación diafásica", in Villayandre Llamazares, Milka, *Actas del V Congreso de Lingüística General: León 5-8 de marzo de 2002*, Vol.1, 173-185.
- Almeida, Manuel, 1999/2003, *Sociolingüística*, Universidad de La Laguna, La Laguna.
- Alvarez González, Albert, 2006, *La variación lingüística y el léxico. Conceptos fundamentales y problemas metodológicos*. Sonora: Universidad de Sonora.
- Aurrekoetxea, Gotzon, 2002, "Algunas consideraciones sobre la contrapregunta en las encuestas lingüísticas", in L. Rabassa (arg.), *Mélanges offerts à Jean-Louis Fossat*, Chaiers d'Etudes Romanes, CerCLiD 11/12, 57-65.
- Aurrekoetxea, Gotzon, 2008, "Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran", *Euskalingua* 12, 17-26.
- Aurrekoetxea, Gotzon & Jose Luis Ormaetxea, 2006, "Euskararen Atlas Sozio-Geolinguistikoa" ikerketa-proiektua", *Euskalingua* 9, 157-163 [badu ingeles bertsioa ere].
- Aurrekoetxea, Gotzon & Jose Luis Ormaetxea, 2008 "Euskara dialektalaren ahozko corpusa (EDAK)" (argitaratzeko in Euskaltzandiaren XVI. Biltzarreko aktetan).
- Aurrekoetxea, Gotzon & Maria Pilar Perea, 2009, "The Dialectal Survey: a Critical Revision of Some Methodological Aspects", *Dialectologia et Geolinguistica* 17: 3-11.
- Aurrekoetxea, Gotzon & Charles Videgain, 2004, *Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*, ASJU-ren gehigarriak XLIX, Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Leioa.
- Aurrekoetxea, Gotzon, Charles Videgain & Aitor Iglesias, 2004, "*Bourciez*" bildumako euskal atlasa (BBEA)-1: *Lexikoa*, ASJU-ren gehigarriak, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Leioa.
- Aurrekoetxea, Gotzon, Charles Videgain & Aitor Iglesias, 2005, "*Bourciez*" bildumako euskal atlasa (BBEA)-2: *Gramatika*, ASJU-ren gehigarriak, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Leioa.
- Bailey, Charles-James, 1973, "The patterning of linguistic variation", in E. Bailey & J. Robinson (arg.), *Varieties of Present-Day English*, MacMillan, New York, 156-187.
- Bailey, Charles-James / Roger Shuy (arg.), 1973, *New Ways of Analysing Variation in English*, Georgetown University Press, Washington.
- Bertuccelli, M., 1996, *Qué es la pragmática*, Paidós, Barcelona-Buenos Aires-México.
- Casas, Miguel, 1993, "Consideraciones sobre la variación diafásica", *Pragmalingüística* 1, 99-123.
- Cestero Mancera, Ana María, 1992, "Intraspeaker linguistic variation: Style, register. A provisional bibliography", in Moreno Fernández, (arg.), 1992, *Sociolinguistics and stylistic variation*, "LynX, a Monographic Series in Linguistics and World Perception, vol. 3", Valencia: University of Minnesota-Universidad de Valencia, 125-130.
- Coseriu, Eugenio, 1981, Los conceptos de dialecto, nivel y estilo de lengua y el sentido propio de

- la dialectología, *Lingüística Española Actual* III, 1-32.
- Cresti, Emanuela & Massimo Moneglia, 2005 (arg.), *C-ORAL-ROM. Integrated Reference Corpora for Spoken Romance Languages*, John Benjamins.
- Cresti, Emanuela & Massimo Moneglia, 2007, "C-ORAL-ROM. Comparing romance languages in spontaneous speech corpora", to appear in Mello, E., Silva, Ch., *Proceedings of the V Congresso Internacional da ABRALIN, Belo Horizonte* [kantsultagarri <http://lablita.dit.unifi.it/preprint/preprint.2008-04-29.5893779941>].
- De Mauro, T. eta beste, 1993, *Lessico di frequenza dell'Italiano parlato*, in Moretti B., Petrini D., Bianconi S. (a cura di), *Linee di tendenza dell'italiano contemporaneo*, Atti del XXV Congresso Internazionale di Studi della Società di Linguistica Italiana (SLI), Bulzoni, Roma, pp. 83-118.
- Eckert, Penelope & John Rickford (arg.), 2001, *Style and Sociolinguistic Variation*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Escandell, Maria Victoria, 1993, *Introducción a la pragmática*, Ed. Anthropos, Barcelona
- Ezenarro, Amaia, 2008, "Etxebarria eta Bolibarko bariazio linguistikoa", *Uztaro* 67, 59-84.
- Fernández Smith, G. & L. Escoriza, 2004, "Variación léxica y texto: análisis cualitativo del grado de formalidad en contexto con AQUAD", *Pragmalingüística* 12, 93-90.
- Flydal, Leiv, 1951, «Remarques sur certains rapports entre le style et l'état de langue», *Norsk Tidsskrift for Sprogvidenskap* XVI, 240-257.
- Gimeno, Francisco, 1991, *Dialectología y sociolingüística españolas*, UA, Alacant.
- Gummerson, Evert, 1991, *Qualitative methods in management research*, Newbury Park: Sage.
- Hernández Campoy, Juan Manuel & Manuel Almeida, 2005, *Metodología de la investigación sociolingüística*, Ed. Comares, Málaga.
- Huber, G.L. & Hernández Smith, G. & Lorenzo Quiles, O. & L. Herrera Torres, 202, *Análisis de datos cualitativos con AQUAD Cinco para Windows*, Granada, Grupo Editorial Universitario [Programa: www.aquad.de].
- Labov, William, 1983, *Modelos sociolingüísticos*, Madril, Ed. Cátedra.
- Labov, William, 1994, *Principles of Linguistic Change. Internal Factors*, Oxford, Blackwell.
- Labov, William, 2001, *Principles of Linguistic Change. Social Factors*, Oxford, Blackwell.
- Larrosa Barbero, Mirian, 2004, "Metodología sociolingüística", *Anuario de lingüística hispánica* 19-20 (2003-2004), 141-178.
- Linell, Per, 2005, *The Written Language Bias in Linguistics: Its Nature, Origins and Transformations*, Dordrecht: Routledge.
- López Morales, H., 1993-1994, "Precisiones sobre el concepto de *competencia sociolingüística*", *Boletín de Filología* [de la Universidad de Chile] 34, 257-270.
- Milroy, Lesley & Matthew Gordon, 2003, *Sociolinguistics: Method and Interpretation*, Oxford, Blackwell.
- Milroy, Lesley y Jamen, 1985, "Linguistic change, social network and speaker innovation", *Journal of Linguistics* 21, 339-384.
- Moreno Fernández, Francisco, 1990, *Metodología sociolingüística*, Madril, Gredos.
- Moreno Fernández, Francisco (arg.), 1992, *Sociolinguistics and Stylistic Variation*, Lynx 3, Minneapolis eta Valentzia.

-
- Moreno Fernández, Francisco, 1996, "Metodología geolingüística y metodología sociolingüística. El sexo en los atlas", in E. Radtke y H. Thun (arg.), *Neue Wege der romanischen Geolinguistik, Acten des Symposiums zur empirischen Dialektologie*, Kiel, Westensee-Verlag, 1996, 92-112.
- Moreno Fernández, Francisco y Pilar García Mouton, 1993, Sociolingüística en el ALECMAN, in R. Penny (arg.), *Actas del I Congreso Anglo-hispano*, Madril, Castalia, 139-149. [eta <http://www.uah.es/otrosweb/alecman/contenido/Socioling.htm>].
- Ormaetxea, Jose Luis, 2008, "Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa", *FLV* 108, 249-262.
- Payrató, Lluís 1997, "Variación lingüística y modalidades de la lengua oral", in A. Briz, J. R. Gómez Molina, J. J. Martínez Alcalde y grupo Val.Es.Co (arg.), *Pragmática y gramática del español hablado. El español coloquial*, Zaragoza, Pórtico, 177-192.
- Trudgill, Peter, 1974, *The Social Differentiation of English in Norwich*, Cambridge, Cambridge University Press.
- Trudgill, Peter, 1978, *Sociolinguistic Patterns in British English*, Londre, Edward Arnold.
- Turell, M., 1995, *La sociolingüística de la variació*, Barcelona, PPU.
- Villena, Juan Andrés, 1994, *La ciudad lingüística. Fundamentos críticos de la sociolingüística urbana*, Granada, Universidad de Granada.